



KOMUNIKAZIO-JARDUERA:

Objektu bat, milaka marrazki

Jarduera honetan, ikasleek irudi bidez komunikatzeko modu ezberdinak landuko dituzte. Izan ere, otso bat otsoa dela adierazteko ez dugu zertan otso hiperrealista bat irudikatu.

Batzuetan nahikoa izango da otsoaren ezaugarri nabarmenenak adieraztea, belarriak eta letaginak ondo markatuz adibidez, edo otsoaren diagrama nahiz hitzezko adierazpenak erabiliz.

Jarduera honetan gai edo objektu ezberdinak proposatuko zaizkie ikasleei, gelan lantzen ari diren gairen bati lotuak. Lehendabizi, objektu edo gai hori ahalik eta zehatzen adierazten saiatuko dira ikasleak.

Ondoren, beste marrazki bat egingo dute objektuaren ezaugarri nabarmenenak analizatuz edo exageratuz.

Azkenik erreferentzia irudiaren ahalik eta irudi ximpleena egiten saiatu beharko dira.

GELAKO MATERIALAK

Jarduera hau egiteko beharrezko materiala eranskinetan aurkituko duzu.



KONTUAN IZAN

- **HELBURUA**

Ikasleek irudi bidez komunikatzerako orduan erabil ditzakeen errepresentazio maila ezberdinak ezagutzea. Izan ere, sarri irudi hiperrealistak baloratzen dira soilik. Dena den, irudi bidez komunikatzerako garaian helburua ikusleak irudia ondo interpretatzea da, eta horretarako, ez da beharrezko irudiak modu hiperrealistan marraztea. Horren ordez, nahikoa izan daiteke marraztu beharreko objektu edo kontzeptuaren ezaugarri bereizgarriak identifikatu eta hauek irudi bidez adieraztea.

- **IKASLEEI ESKATZEN ZAIENA**

Ikasleei eskatzen zaiena: jarduera ahalik eta gogo gehienekin egitea, objektu edo elementu hori ezberdin egiten duten ezaugarri bereizgarriak identifikatuz eta irudi bidez komunikatuz.